

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BURGELUKO UDALA

#### **Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako Burgeluko Udalaren idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostua betetzea**

Kontuan izan behar da idazkari-kontuhartzaitzako lanpostua bete beharko dela, hutsik da-goelako.

Ikusi dira Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak.

Ebatzi dut

Lehenengoa. Hasiara ematea Burgeluko Udaleko idazkari-kontuhartzailearen lanpostua betetzeko gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionarioaren izendapena proposatzeko prozedurari, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduren batean eta adierazten duten lehentasunaren arabera.

Bigarrena. 5 egun balioduneko epea irekitzea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiak parte hartzeko eskabideak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduaren arabera, eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioak izendatuko dira, eta lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiak izango dute lehentasuna.

Egoera bakoitzaren barruan, lehentasuna izango du eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorrak.

Idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein modutan aurkeztu ahal izango da.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun-ordena ezarri ondoren, eta Burgeluko Udalak hurrenkera horren arabera izendapenaren aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari hamar egun balioduneko epean destinatuta dauden toki-erakundearen aldeko txostena aurkezteko eskatuko zaio, aipatutako artikuluen arabera, bai eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak aurkezteko ere.

Laugarrena. Hautagairik aurkeztu ezean, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. eta 53. artikuluetan aurreikusitako prozedurarekin jarraituko da.

Bosgarrena. Osoko Bilkurari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena: idazkaritza. 3. maila.

Lan-harremana: gaikuntza nazionaleko funtzionarioa.

Eskala: gaikuntza nazionala.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzaitza.

A1-A2 azpitaldea.

Lanpostu-mailako osagarria: 26.  
Berariazko osagarria: 24.654,91 euro.  
Hizkuntza-eskakizuna: 3.  
Derrigortasun-data: 2022 urriaren 26.

Burgelu, 2025eko urtarrilaren 9a  
*Alkate-udalburua*  
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA

### ERANSKINA

..... jauna/andrea ..... NANaren titularra (jakinarazpenetarako helbidea:..... herria; telefono-zenbakia:.....), Estaturako gaikuntza duen Toki Administrazioko funtzionarioa,..... azpieskalakoa, eta, gaur egun,..... lanpostua betetzen ari dena..... toki-erakundearen,..... (e) k egindako izendapenagatik, jabetza hartzeko datarekin (edo zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran dagoelarik – lankidetzeta-lanpostuak kentzea- izendapen askeko lanpostuak uztea).

#### Azaldu du

Jakin duela Burgeluko Udaleko idazkari-kontuhartzaitza lanpostua hutsik dagoela/ez duela betetzen titularrak, eta behin-behineko izendapenaren, zerbitzu-eginkizunen edo metaketaren bidez bete dezakeela.

Lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak beteta dituela, indarrean dagoen legeriaren arabera, eta dagozkion izapideak bete ondoren, honako hau

#### Eskatzen du

Burgeluko Udaleko idazkari-kontuhartzaitza lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu-eginkizun bidez edo metaketa bidez (ezabatu egokia ez dena) betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera doa:

- \* NANaren fotokopia.
- \* Estaturako gaikuntza duen toki-administrazioko funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.
- \* Pilaketako lanpostua eskatuz gero, pilaketako izendapenik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

..... (e)n, 20... (e)ko..... aren... (e)(a)n

Sinadura:.....